

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGAREN KUOTAK
FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN
ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Udal honek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko Uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauko 4.4 artikulua ematen dion zilegidura erabiliz, artikulua horretako lehen atalean ezarritako gutxienezko kuotak finkatzen ditu Eranskinean adierazten den koefizientea aplikatuz.

II. ZERGA KUOTA

2. Artikulua

Aurreko artikulua aipatzen duen koefizientea aplikatuz, zerga hau eranskin horretan adierazten diren tarifa taularen arabera exijituko da.

III. ZERGAREN KUDEAKETA

3. Artikulua

Zerga hau autolikidazio erregimenean exijituko da, horretarako udal administrazioak zerga honen subjektu pasiboak eta espedienteak izapidetzen dituzten gestoriei emango dien ereduaren arabera.

Zergaren ordainketa autolikidazioa aurkeztuko den unean egingo da.

4. Artikulua

Zerga hau ordaindu dela egiaztatuko duen dokumentua zorra kitzatze unean Udal Administrazioak emango duen behin-betiko ordainagiria izango da.

5. Artikulua

1. Zerga honen zorraren ordainketa eguneratuta daukala egiaztatuko duen ziurtagiriaren aurkezpena ezinbesteko baldintza izango da ondorengo espedienteak izapidetzeko eskaerari Trafiko Buruzagitzan hasiera emateko:

a) Zirkulatzeko ibilgailuaren gaitasun ziurtagiriaren aurkezpena.

b) Ibilgailuaren behin-betiko bajaren aurkezpena.

c) Ibilgailuaren erreformaren aurkezpena, zerga honen ondorioetarako haien sailkapena aldatzen denean.

d) Ibilgailuaren transferentziaren aurkezpena.

e) Ibilgailuaren zirkulazio baimenean azaltzen den subjektu pasiboaren bizileku aldaketaren aurkezpena.

2. Kuotaren ordainketa egiaztatuko duen ordainagiriaren aurkezpena ezinbesteko

betebarra izango da, hori aurkeztea eskatzen duten Zergapeko ibilgailuen matrikulazio espedienteei hasiera emateko Trafiko Buruzagitzan.

IV. KUOTEN ITZULKETA

6.Artikulua

Ibilgailuaren behin-betiko baja kasuetan, subjektu pasiboaren alde izango diren kuota proportzionalak, era berean behin-behineko likidazioan sobera ordaindutakoak, Zergaren subjektu pasiboari itzuliko zaizkie behin-betiko baja eta ibilgailuaren matrikulazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko unean.

V. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza Fiskal hau eta daraman Eranskina Udalbatza Osoak 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran onartu ziren eta indarrean 2012ko urtarrilaren 1ean sartuko dira, aldatzea edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko direlarik.

ERANSKINA

Koefizienteak eta tarifak hauek izango dira:

<u>Ibilgailuen potentzia eta mota</u>	<u>koefizientea</u>	<u>kuota/€</u>
a) Turismoak		
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	2,312	42,50
9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,312	85,05
12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,312	141,75
14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,334	200,30
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,380	262,60
20 zaldi fiskal baino gehiagokoak	2,380	320,95
b) Autobusak		
21 jarleku baino gutxiagokoak	2,312	192,60
21 eta 50 jarleku bitartekoak	2,312	274,30
50 jarleku baino gehiagokoak	2,312	342,85
c) Kamioiak		
1.000 kg. baino gutxiagoko karga baliagarrikoak	2,312	97,75
1.000tik 2.999 kg.ra arteko karga baliagarrikoak	2,312	192,60
2.999tik 9.999 kg.ra arteko karga baliagarrikoak	2,312	274,30
9.999 kg. baino gehiagoko karga baliagarrikoak	2,312	342,85
d) Traktoreak		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	2,312	40,85
16 eta 25 zaldi fiskal bitartekoak	2,312	64,20
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	2,312	192,60
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastaturiko atoiak eta erdi atoiak:		
1.000 kg. baino gutxiagoko karga baliagarrikoak	2,312	40,85
1.000tik 2.999 kg.ra arteko karga baliagarrikoak	2,312	64,20
2.999 kg. baino gehiagoko karga baliagarrikoak	2,312	192,60
f) Bestelako ibilgailuak		
Ziklomotoreak	2,312	10,45
125 zm3 arteko motozikletak	2,312	10,45
125 eta 250 zm3 bitarteko motozikletak	2,312	17,85
250 eta 500 zm3 bitarteko motozikletak	2,312	35,70
500 eta 1.000 zm3 bitarteko motozikletak	2,312	71,45

1.000 zm3 baino gehiagoko motozikletak
SALBUESPEN ETA HOBARIAK

2,312 142,85

14/1989 Foru Arauaren 2.artikuluaren 1 apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, interesatuek eskaera bat aurkeztu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.

Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, ibilgailuen titularrek udalerrri honetan egon beharko dute erroldatuta, eta zergaz salbuesteko eskaera Udaletxeko Erregistro Orokorrean idatziz aurkeztu. e) letrako salbuespenaren inguruan, urte bakoitzean salbuespena soilik ibilgailu batek izango du eta izango du urtarrilaren 1ean Trafikoko Erregistroan altan zegoenak.

Eskaerari honako agiriok erantsiko dizkiote:

a) Ibilgailuak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat direnean edo minusbaliatuen izenean eta horiek bakarrik erabiltzeko matrikulatuta daudenean:

-Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia

-Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

-Gizartekintzak edo bere ordeztuak diharduen erakunde edo agintari administratiboak luzatutako ziurtagiri originala.

b) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta nekazaritzako makinak badira:

-Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia

-Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

-Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua.

Fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna dutenek %100eko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

Ibilgailuek %75eko hobaria izango dute zerga kuotan, kontsumitzen duten karburante motaren edo motorren ezaugarrien arabera eta horrek ingurugiroan duen eraginaren arabera. Horretarako, ibilgailuaren motorra elektrikoa izan behar da edo/eta kontaminazio emisio gabekoa.

Hobari desberdinak ez dira akumulatuko eta beti hobari altuena aplikatuko da.

Izaera orokorrean, hobaria hasten da aplikatzen eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera eta ez du atzera eraginik. Dena den, onura fiskala eskatzen bada likidazioa ordaintzeko borondatezko epearen barruan, onura emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.

ALKATEA

IDAZKARIA

KONTUHARTZAILEA